

EGUBERRIAK 2025

1. OLENTZERO

OLENTZERO JOAN ZAIGU
MENDIRA LANERA
INTENTZIOAREKIN
IKATZA EGITERA.

ADITU ZUENIAN
JESUS JAIO ZELA
KORRIKA ETORRI OMEN ZAN
PARTE EMATERA.

OLENTZERO INONDIK
EZIN DUGU ASE
OSORIK JAN DIZKIGU
HAMAR ZERRI GAZTE,

SAIHESKI TA XOLOMO
MAKINA BAT HESTE
JESUS JAIO DA ETA
KONTSOLA ZAITEZTE.

OLENTZERO BURU HANDIA
ENTENDIMENTUZ JANTZIA
BART ARRATSIAN
EDAN OMEN DU
HAMAR ARRUKO ZAGIA.

AI, URDE TRIPA HANDIA!
TRALARALALA, TRALARALALA
AI, URDE TRIPA HANDIA!
TRALARALALA, TRALARALALA.

HORRA, HORRA,
HORRA, HORRA.
GURE OLENTZERO.

PIPA HORTZETAN DUELA
EXERITA DAGO
KAPOIAK ERE BAITU
ARRAUTZATXUAKIN
BIHAR MERIENDATZEKO
BOTILA ARDUAKIN. ... (3 ALDIZ)

4.- HATOR, HATOR

HATOR, HATOR, MUTIL ETXERA
GAZTAINA XIMELAK JATERA.
GABON GAUA OSPATUTZEKO
AITAREN TA AMAREN ONDOAN.
IKUSIKO DEK AITA FARREZKA
AMAREN POZ ATSEGINEZ.

ERAGIOK MUTIL
AURREKO DANBOLIN HORI
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI TXAPLA PUN.

GABON GAUA POZIK IGARO
DEZAGUN.

2.- OILARRA KANTA KANTARI

OILARRA KANTA KANTARI
KUKURRUKU KUKURRUKU
KALE JIRAN DABILTZA
KUKURRUKU KUKURRUKU.

EGUARRI GAUA OSPATZEN
KUKURRUKU KUKURRUKU
JESUS JAIO DA BELENEN
KUKURRUKU KUKURRUKU.

ATZETIK TXITOAK ERE,
TXIO TXIO TXIOKA!
AURREKOEI EZIN SEGI,
TXIO TXIO TXIOKA!

EGUARRI GAUA OSPATZEN,
PIO PIO PIO PIO!
JESUS JAIO DA BELENEN,
TXIO TXIO TXIOKA!

3.- ALAKEN

ALAKEN, ALAKEN
ALA PIKULA TUNBAILEN
ERRESPONDELA PIKULA TUNBA
JESUS, MARIA, JAINKOA ZEN

ADISKIDEOK, IKUSI DUZUE,
ZELAI HORIETAN ARTZAIA,
ARTZAI TXIKI, ARTZAIN HAUNDI,
ARTZAIN MUTUR LEUNA.

ALAKEN, ALAKEN
ALA PIKULA TUNBAILEN
ERRESPONDELA PIKULA TUNBA
JESUS, MARIA, JAINKOA ZEN.

6.- MENDI ALDETIK DATOZ

MENDI ALDETIK DATOZ,
ARTZAINAK, ARTZAINAK,
BILDOTS BANA HARTURIK
BIZKAR GAINEAN.

GABON GAUEAN KANTA,
KANTA ALELUIA, KANTA ALELUIA,
ALELUIA,
GABON GAUEAN KANTA,
KANTA ALELUIA, GAUEAN.

HAUR TXIKI BAT JAIO DA
BELENEN, BELENEN.
GUZION JAINKOA DA
POZTU GAITEZEN.

5.- AUPA GOAZEN

AUPA GOAZEN GABON ESKIAN
OHITURA ZAHARRA DA EUSKAL
HERRIAN
AUPA GOAZEN GABON ESKIAN
JESUS HAURRAREN IZENEAN.

TRALARALA, LARALA, LARALA,...

BART BELENEN, BART BELENEN
JAIO DA JESUS NAZAREN.
BART BELENEN, BART BELENEN
JAIO DA JESUS NAZAREN.

7.- HORRA MARI DOMINGI

HORRA MARI DOMINGI
BEGIRA HORRI,
GUREKIN NAHI DUELA
BELENA ETORRI,
GUREKIN NAHI BADUZU
BELENA ETORRI;
ATERA BEHARKO DUZU
GONA ZAHAR HORI:
ATOZ, ATOZ,
ZURE BILA NEBILEN NI;
ATOZ, ATOZ;
ZURE BILA NEBILEN NI
ATOZ GOAZEN TA ADORA
DEZAGUN BELENEN JAIO DEN
HAUR EDER HORI;
HAUR EDER HORI.

8.- AGUR ESKERRIK ASKO

AGUR ESKERRIK ASKO
AGUR ETXEKOAK
HURRENGO URTE ARTE
HEMENDIK BAGOAZ.

HEMENDIK, BAGOAZ...

